BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

912

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2013-2014 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzak emateko dena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 2ko Aginduaren bidez, 2013-2014 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzetarako deia egin zen.

Eskabideen espedienteak aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean adierazten diren erakundeei diru-laguntzak ematea. Eranskinean bertan zehazten dira zenbatekoak.

2. artikulua.– II. eranskinean diru-laguntzarako eskubiderik ez duten entitateak zeintzuk diren eta diru-laguntza zergatik ez zaien ematen.

3. artikulua.– Diru-laguntza bi alditan ordainduko da. Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren % 60, diru-laguntza onartu bezain laster egingo da. Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerako % 40a, bitarteko txosten bat aurkeztu ondoren egingo da. Txosten horretan jasoko da proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den, eta ikasle bakoitzaren banan-banako aurrerabidea ere bai. Txosten hori 2014ko apirilaren 1etik 30era bitartean aurkeztu beharko da.

4. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 30a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

Entitatea	Lurraldea	Puntuak	Diru-laguntza
CPES Otxarkoaga BHIP	Bizkaia	9,5	171.777
CIP Meatzaldeko Behargintza LHIK	Bizkaia	9,4	57.259
CPES Peñascal Fundazioa BHIP	Bizkaia	9,3	171.777
CPES San Miguel-Elizaran Fundazioa BHIP	Gipuzkoa	9	57.259
CPES Sta. Maria de Portugalete BHIP	Bizkaia	8,9	57.259
ADSIS Fundazioa	Gipuzkoa	8,9	57.259
CPES M.ª Inmaculada (Bilbao) BHIP	Bizkaia	8,5	57.259
Diocesanas-Jesús Obrero Fundazioa	Araba	8,5	114.518
Mendibil elkarte pedagojikoa	Gipuzkoa	8,5	57.259
Deba Goieneko Mankomunitateak	Gipuzkoa	8,5	57.259
Urola Garaia Mankomunitatea	Gipuzkoa	8,2	57.259
CPEE Ortzadar HBIP	Gipuzkoa	8,2	57.259
CPEIPS Presentación de María (Donostia) HLBHIP	Gipuzkoa	7,9	57.259
CPEPS San Viator de Sopuerta LBHIP	Bizkaia	7,9	57.259
CPES Nuestra Sra. de Begoña (Barakaldo) BHIP	Bizkaia	7,6	57.259

I. ERANSKINA

Entitatea	Lurraldea	Arrazoia
Escuela profesional Esperanza Alhama	Bizkaia	I. artikulua ez du betetzen
Fundación de trabajadores de la siderurgia integral	Bizkaia	I. artikulua, 4. artikulua eta 7. artikulua ez ditu betetzen